

GOTIk aurkezten du

# URAREN ZIKLOA



MANCOMUNIDAD  
DE VALDIZARBE



IZARBEIBARKO  
MANKOMUNITATEA


HASIERA URA IZAN ZEN.

GOIBEL  
SAMAR DAGO  
PLANETA  
HAU

ETA  
BIZITZA PIZKA  
BAT JARTZEN  
DUDAN!



AHO  
BETE HORTZ  
GERATUKO  
ZARETE!



1961.urtean Yuri Gagarin astronautak lurraldi planeta urdina deitu zion, espaziotik ikusten zen uraren kolorea dela eta.



ENE BADA!

HEMENDIK URDINA DA!

NIRE LEHENGUSUARI KONTATZEN BADIOT...



TOVARICH

Jaiotzean gure gorputzaren %83 ura da, helduak garenean %62.



HORI DA ETA!



GUTXI GORA-BEHERA NIRE GORPUTZAREN %80 URA DA



BA NIRE ADINEAN GORPUTZAK ASKOZ ERE GUTXIAGO DAUKA

Urrik gabe ezin da bizi. Zazpi egun baino gehiago edan gabe egonez gero hilko zinateke. Landareak eta animaliak ere izaki bizidunak dira eta haiek ere urrik gabe hilko lirateke.



HAINBESTE URA IBAIAN ETA NI UR TTANTTARIK GABE!

HASERRETZEN HASIA NAIZ!



**URA  
EDATEKO**



**SUKAL-  
DATZEKO**



**DUTXA-  
TZEKO**



**ARROPA  
GARBITZEKO**



HAUEK DIRA  
URAREN  
ERABILERA  
BATZUK!



**HARRIKOA  
EGITEKO**



¡GLUP!

**LANDAREAK  
UREZTA-  
TZEKO**



**AUTOA  
GARBITZEKO**



**ILEAPAN-  
DEGIAN**



**OSPITALEAN**




**NEKA-  
ZARITZAN**



## URA EDANGARRI BIHURTU

Nekazaritzan, eskoletan, igerilekuetan, hirietan, fabriketan etabar gizakiek egiten dute ur erabilerak ur kutsaturik sortzen du (ur zikina) adibidez konketatik ateratzen den ura, komunatik ateratzen dena (Komuna, dutxa...)




Errezuko iturburutik Ziraukiko arazte plantaraino doan ura tratatu behar dugu. Ura oso ona bada ere kloratu behar dugu gizakiek edateko. Honetaz gain etxeetako ura, fabrikeetako ura etabar tratatzen dugu eta gero ibaira doa kutsadura gutxiagorekin.



# ZER DA URAREN ZIKLOA?

Zikloa da errepikatzen den zerbait, asteko egunekin gertatzen den bezala edo urtaroeekin etabar...Prozesu hau duela 3000 miloi urtetik errepikatzen ari da. Modu honetan ura birziklatzen da. Horrela izanda dinosaurioek edan zuten ura bera egun edaten dugu guk.



Ziklo honek landareen geruza, geografia eta orokorrean bizitza baldintzatzen du.

EURI GEHIEN EGITEN DUEN PENINTSULAKO TOKIA ARTIKUTZA (NAFARROA) DA ETA MENDIZERRA GRAZALEMAKOA (CADIZ)



# EDATEN DUGUN URA, NONDIK DATOR?

Errezuko iturburutik ura edangarri bihurtzeko **Zirauki**kiko plantaraino hodian bitartez ekartzen da ura. Han ura biltzeko urtegia dago, udako ur ezak eman lezakeen edozein arazo konpontzeko.

ZIRAUKIKO URA EDANGARRI BIHURTZEKO PLANTAREN ETXEA



URA BILTZEKO EDO ERREGULATZEKO URTEGIA



ERREZUKO URA SARTZEKO HODI NAGUSIA



BARNE HODIAK



URA EDANGARRI BIHURTZEKO PLANTAREN AGINTE MAHAIA




DEKANTAZIO KUELA

URA EDANGARRI BIHURTZEKO MANKOMUNITATEKO TOKI HAUEK EZAGUTZEN AL DITUZUE?



# URA EDANGARRI BIHURTZEKO PROZESUA

**1** ITURBURUTIK PLANTARA ERAMAN OSTEAN KLORO BOTATZEN ZAIO.



**2**  
DEKANTAZIO  
PISZINARA  
PASARAZTEN DA.  
BERTAN MATERIAL  
HANDIENAK  
GERATUKO DIRA.




**4**  
URA EDANGARRI  
BIHURTU OSTEAN  
HODIEN BIDEZ  
ETXEETARA  
ERAMATEN DA  
ETA BERTAN  
GURE BEHARRAK  
ASETZEKO  
ERABIL  
DEZAKEGU.



# ETA UR KUTSATUEKIN, ZER EGIN DEZAKEGU?

Ur kutsatuak dira egunero zikintzen ditugun urak edota kalitate baxukoak (komunak, konketak, etabar). Ur hauek guztiak ur zikinak tratatzeko planta bateraino bideratzen dira.

HERRIETATIK JASOTAKO UR ZIKINA TRATATZEKO PLANTA BATERAINO ERAMATEN DA HODI SISTEMA BATEN BIDEZ.



HODI HAUEK LURPETIK DOAZ BAINA NI HAGITZ JATORRA NAIZENEZ HONELA ERAKUSTEN DIZKIZUET!



## UR ZIKINAK ARAZTEKO FASEAK

Lehenengo eta behin tamaina handiko edo ertaineko materialak kendu eta biometanizazio prozesu batera eramaten dira.



ARRANOPOLAI EZ NUKE HEMEN ERORI NAHI!



Gero 3 edo 6 ordu ematen dituzte dekantagailuan. Uretan dagoen materia gehiena, pisu handiago duenez, hondora doa eta hortik kentzen da.

Materia organiko gehiena dutxa moduko sistema baten bidez kentzen da, ura botatuz. Honetan organismo arazgarriak laguntzen dute.



Azkenik aurreko tratamenduetako organismoak dekantatzen dira eta ibaira botatzen da.

HORRELA HOBE?

JAKINA!



# URMAELERATZE NATURALA

Arazteko ura aintziretan uzten da ur zirkulazio bat eginez. Aintzira horietan alga garbitzaileak sortzen dira. Prozesu honi esker lohiak sortzen dira eta ura behin kenduz gero nekazaritzarako erabiltzen dira.



## ZENBAT UR DUGU?

Ur kopurua **konstantea** da baina gizakien jarduerak eragiten du erabilgarritasunean, kalitatean bai eta egoera fisikoan (berotasuna) ere. Gizakiek ur ziklo naturala **aldatzen** du.

## URAREN KONTSUMOA ETA OSASUNA

Edangarria ez den ur kontsumoa eta gaixotasunen arteko harreman zuzena dago. Ur zikinen isuriek ibaiak, itsasoak, lakuak eta akuiferoak **kutsatzen** dituzte. Ura **arazteak** ingurunea biziberritzen laguntzen du. Gure planetako eskualde batzuetan ura **xahutzen** da (adibidez gurean) eta beste eskualde batzuetan ur beharrak **ezin dira bete**.

## URAREN DISTRIBUZIOA MUNDUAN



OZEANOETAKO URA  
(OSOAREN %97,50)

UR GOZOA  
(%2,50)

Ur gozoaren  
%68 glaziarretan  
dago.



Herrialde industrializatueta 4 kideko familia batek 600 litro erabiltzen ditu egunean; gutxi gora-behera 175 litro laguneko eta eguneko.



**NAFARROAN 900 HEKTOMETRO KUBIKO KONTSUMITZEN DITUGU URTEAN.**

**IZARBEIBARREAN 313 LITRO KONTSUMITZEN DITUGU BIZTANLEKO ETA URTEKO. ETXEAN, INDUSTRIAN, UREZTATZEAN ETA IGERILEKUETAN ERABILTZEN DUGUN URA KOPURU HONEN BARNEAN SARTURIK DAGO.**

**GURE ZONALDEAN NEGUAN KONTSUMITZEN DENA ZEHAZKI BIDER BI KONTSUMITZEN DA UDAN.**



**ONGI ERREPARATU GURE INGURUKO DATU HAUEI NESKA MUTIKOAK!**



Oso erraza egiten zaigu ura erabiltzea ur beharra dugunean. Hala ere errealitate honetaz hausnartu behar dugu eta erabilera arduratsuagoarekin konprometitu behar dugu.

## NAFARROAKO UR KONTSUMOAREN DISTRIBUZIOA

%6 INDUSTRIA ERABILERA


%7 HIRI ERABILERA

**%87 NEKAZARITZA ERABILERA**

# BESTE JARDUERA BATZUETAN, NOLA AURREZTU DEZAKEGU URA?



Autoa makinaz garbitzen baduzu 35 litro ur kontsumitzen dira.



Mangeraz garbitzean 500 litro kontsumitzen dira.



Hobe da ureztatzea putzurik egin gabe eta askoz ere hobe ureztatze automatiko eta hezetasun detektagailuarekin egitea.



Ez garbitu inoiz autoa ibai ondoan.



Lurrinketa saihesteko ilunabarrean ureztatuz behar da.



Komenigarria da euria jasotzeko ontzia paratzea.



Mendian gaudela hondakinak jaso behar ditugu, bestela ibaira helduko dira.

## BOTILAKO URA

- Ez da lzarbeibarko ura baino hobea.
- **Prezioa balorea baino 1000 aldiz garestiagoa da.**
- Urtean 1,5 miloi tona plastiko erabiltzen da.
- **Negutegi efektua eragiten dituzten gasak sortzen ditu garraiatzeak**



## UR KONTSUMO ERAGINKORRA


HIRITAR ERAGINKORRA	100 litro eguneko
OSPITALEA	600 litro oheko eta eguneko
HOTEIA	200 litro gaueko
BULEGOA	20 litro erabizailleko eta eguneko
TABERNA	8 litro erabiltzaileko eta eguneko
JATETXEA	30 litroerabiltzaileko eta eguneko

(ETXeko KONTSUMO-AREN %65)

Ur ihesak aurkitu. Komuneko ur ihesetan urtean 200.000 litro ur gal daitezke.



Erabili husteko bi modutako zisternak.



Bainatu beharren dutxatu. (dutxa 100 litro bainua 300 litro)



Kanilak aldatuz gero jarri monomandoa..



Itxi txorrota hortzak garbitu, bizarra egin edo xaboitzen ari zaren bitartean.



Haizegailuak jarri. Kanilako muturrean jartzen dira ur txorrotan haizea sartuz. Kontsumoaren %40 murrizten da.



Ez erabili komuna paperontzi gisa. Horretarako jarri paperontzi bat komunan.

## SUKALDEAN

Erabili plater garbigailu eta arropa garbigailu erangikorrek eta martxan jartzean beti beteta egon behar.




Aurkitu ur ihesak. Urtean 10.000 litro arte gal daitezke.




Harrikoa eskuz eginuz gero txorrota ez utzi zabalik.



Udan sartu botila bat ur hozkailuan. Horrela ur txorrota freskoaren zain zauden bitartean ez duzu ura xahutuko.



Ura, berotu arte, landareak urretzatzeko, zoru garbigailuaren ontzia betetzeko erabil daiteke.



Bidaia eginuz gero etxetik ateratzean itxi ur pasabidea.



Uretan ez duzu inoiz oliorik bota behar.



Oharrak



# URA ALTXORRA DA! EZ XAHUTU!



geure  
bezeroek  
aukeratutako  
proiektua

can

MANCOMUNIDAD  
DE VALDIZARBE



IZARBEIBARKO  
MANKOMUNITATEA